

JOSE RAMÓN MARTÍNEZ-EN HITZALDIA

Jose Ramón Martínezek Ekonomia eta Enpresa Zientziak ikasi zituen Euskal Herriko Unibertsitatean. Banku pribatuan ibilbide laburra egin ostean, Administrazioan hasi zen lanean. Egun Zerga-Administrazioako Zuzendaritzaren Zerga-Politika Zerbitzuko Buru da, bertako koordinazio organoan jarduera profesionalaren zati bat egiten duelarik. Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiko kide da, erakundeen arteko lantaldeetan parte hartu du eta HAEekin eta Herri-dirubideen Institutuarekin elkarlanean aritu da. Ogasun eta Herri-dirubideen gaineko Masterrean irakaskuntza lanak egin ditu eta Zergak aldizkariaren Ordezko Erredakzio Batzordeko kide ere bada.

Gasolio Profesionalaren tratamendu fiskalaren gainean hainbat kontsulta egiten ari dira garraioaren (bidaiariaren zein salgaien garraioaren) sektorean, hidrokarburoen alorreko langileak, txikizkako banatzaileak eta ekimen horren onuradun izatera heltzeko berriazko ordainketa txartelen igortzaileak.

Foru Aldundiek ahalegin handia egin dute Gasolio Profesionalaren zerga-onuratarera heltzeko prozedura era oso didaktikoan hedatzeko eta azaltzeko orduan. Jardunaldi tekniko hau, beraz, Foru Aldundiak hedatzeko (informazioa bakoitzaren webgunean eskura daiteke) egiten ari diren lanaren osagarri izango da.

Hurrengo txostenaren sarrera izateaz gainera (izan ere, hurrengo txostena praktikoagoa eta zehatzagoa da), jarraian Gasolio Profesionalaren aurrekariak, zuzenbide-esparrua, tratamendu fiskal espezifikoak eta foru aldundiek ezarritako aplikatzeko baldintzez arituko naiz.

Lehenik eta behin geure zerga sistema, gainerako herrialde garatuetan bezala, gaitasun ekonomikoaren zuzeneko adierazpenak zergapetzen dituzten zuzeneko zergak (PFEZ partikularrentzat eta Sozietateen gaineko zerga enpresentzat) eta kontsumoarekin lotutako adierazpen ekonomikoak zergapetzen dituzten zeharkako zergak osatzen dituztela gogoratu behar dugu. Zeharkako zerga horien artean, gasolioaren tratamendu fiskal nagusia eta Gasolio Profesionala daude.

Kontsumoaren gaineko zerga nagusia den BEZaz gainera, badaude ere zenbait kontsumo espezifikoaren gaineko zerga osagarri (“akzisa”, Erkidegoko terminologia erabiltzen badugu); zerga osagarri horiek hainbat arrazoi direla medio ezartzen dituzte: osasuna, ingurumena, eskasia eta abar.

Erregaia da, kontsumoaren gaineko zerga nagusiaz gainera, zerga berezia —hidrokarburoena— eta hidrokarbuero jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga osagarria jasaten dituen produktuetakoa bat; azken zerga horrek tarte finkoa eta, lurralde komunean Autonomia Erkidegoei eta foru-lurraldean foru aldundiei, egotz diezaioket

gun beste tartea du. Egun, Euskadin ez da aipatu dugun azken tarte hori aplikatzen.

Geure eskumen-lurraldean zerga horiek ordainaraztea foru aldundiei dagozkie, baina Kontzertu Ekonomikoaren arabera, ereduak eta epeak izan ezik, horiek arautzeko eskumena Estatuko Administrazioarena da. Horrek Estatuko Administrazioak egiten duen gasolio profesionalaren diseinua foru aldundiek onartu behar dutela esan nahi du.

Bestalde, Estatuko Administrazioak —eta EBko estatu kide guztienak— zerga bereziki eta gasolioaren zergak ordaintzarekin lotutako eskumenak murriztuta ditu, estatu kide guztiak bateratuta daudelako eta horrek aplika daitekeen zergak ordaintzeko eredia baldintzatzen duelako. Bateratze hori egiteko baldintzak kokatu ahal izateko, energia-produktuak eta argindarra ezartzeko Erkidegoko esparrua berriro ere egituratzen duen 2003/96 Zuzentaraua aipatu beharra dago.

Zuzentarau horren arabera, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera gasolioari aplika dakioken zergaren gutxieneko maila 1.000 litro bakoitzeko 32 €oa izan behar da. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, 1.000 litro bakoitzeko 330 €o zerga-tasa ezarri beharko litzake. Zuzentaruak gasolioaren erabilera profesionalaren eta ez profesionalaren artean bereiztea ahalbidetzen du, betiere gutxieneko tasak errespetatuz eta gasolioari aplikatzea posible den tasa 2003ko urtarrilaren 1ean estatu mailan indarrean zegoena baino txikiagoa ez bada. 2003ko urtarrilaren 1ean tasa hori 1.000 litro bakoitzeko 293,86 €oa zen, zerga berezia eta hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zergaren estatuko tartearen ondorioz.

Baina zer da, zuzentarauaren arabera, ibilgailuentzako erregai gisa erabiltzen den Gasolio Profesionala? 7.3 artikuluan Gasolio Profesionala jarraian aipatzen dena dela ezartzen du: salgaien errepide-garraiorako, 7,5 tona ego gehiagoko baimendutako gehieneko zama duten ibilgailuek erabiltzen dutena eta, bidaiariaren garraioari dagokionez, M2 —gidaria gehi zortzi eserleku eta 5 tona edo gutxiagoko baimendutako gehieneko zama— eta M3 mailak sartzen ditu; M3 maila M2ren baliokidea da baina aurretik aipatutako baimendutako gehieneko zama bera edo 5 tonatik gorakoa du.

Hala ere, zuzentaruak behin-behineko epeak aurreikusten ditu zenbait herrialderentzat, tasa horiek aplikatzeko modua denboran zehar aldatzeko aukera emanez. Espainiaren kasuan 2007ko urtarrilaren 1era arte 1.000 litro bakoitzeko 302 €o gutxieneko tasa luzatzea baimendu du, tasa hori 2004rako ezarrita zegoelarik. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, gutxieneko tasa 1.000 litro bakoitzeko 330 €oa izango da; kopuru hori, izaera orokorarekin, 2010eko urtarrilaren 1erako zegoen ezarrita.

Horretaz gainera, Espainiari 2009ko abenduaren 31ra arte tasa 1.000 litro bakoitzeko 287 €oa izatea ahalbidetzen zaio, 2003ko urtarrilaren 1eko maila ez gainditzeko baldintzarekin; 2010eko urtarrilaren 1etik 2012ko urtarrilaren 1era bitartean gutxieneko maila 1.000 litroko 302 €oa izan behar da, horrek 2010eko urtarrilaren 1eko maila ez gainditzeko baldintzarekin.

Aplikazio-eremuari dagokionez, zuzentarauaren arabera, Espainian 2012ko urtarrilaren 1era arte taxiak atal horretan egon daitezke eta 2008ko urtarrilaren 1era arte 3,5 tonako baimendutako gehieneko zama duten ibilgailuak egon daitezke atal horretan.

Zuzentarauak arautzen duenaren arabera, eta Estatuko Administrazioak egin-dako zuzentarauaren moldaketaren arabera, eta foru aldundien arautzeak gehituz, Hidrokarburoen gaineko Zerga 1.000 litro bakoitzeko 269,86€koa da; horretaz gainera, txikizkako salmenten estatuko tartea dago (1.000 litro bakoitzeko 24€) eta baita erkidegoek aplikatu dezaketen gehieneko autonomia-tartea ere (1.000 litro bakoitzeko 48€). Zerga beraz, 1.000 litro bakoitzeko 293,86€koa da eta horri autonomia-tartea aplikatu behar zaio, aplikatzen duten lekuetan. Aurretik aipatutako tartea zenbatu gabe, beraz, 1.000 litro bakoitzeko 8,14€ko aldea egongo da zergan. Horrek gehieneko zerga-onura, ibilgailuentzako gasolioarekin alderatuta, 1.000 litro bakoitzeko 56,14€koa izatera hel daitekeela esan nahi du.

Aurrekoa ikusi ostean, geure zerga-tasa Hamabosteko Europako gainerako estatuetakoarekin alderatzen badugu, zerga-tasa txikiaren artean dagoela ikus dezakegu (Europar Batasuneko batez bestekoaren % 20 bat txikiago, gutxi gorabehera). Horren arrazoia, Espainiaren kasuan erregaia zergen aurretik duen salneurria apur bat garestiago izateagatik aplikatzen diren zerga txikiak dira.

Amaitzeko, garrantzitsua da zerga-onura lortzeko diseinatutako sistema itzulke-ta dela adieraztea. Hori dela eta, Gasolio Profesionala ordaintzeak ez du abantailarik izango hornigailuan ibilgailuentzako gasolio arruntarekin alderatuta. Geroago itzuliko da dagokion ordainsaria. Eredu hori zerga handiak dituen produktu baten kontrola bermatzeko aukeratu dute, izan ere produktuaren salneurriaren % 50etik gora zergei dagozkie.

Kontseiluaren 2003/96/CE Zuzentaraua, 2003ko urriaren 27koa, energia gaien eta argindarraren zergen Erkidegoko esparrua berregituratzen duena.

Zerbitzu energetikoetatik lortzen diren gai guztientzako (gasolioa, besteren artean) gutxienerako zergak ezartzen ditu

Ibilgailuentzako gasolioarentzat aplika daitezkeen gutxienerako zergak

2004ko urtarrilaren 1ean	2010eko urtarrilaren 1ean
302€ / 1.000 litros bakoitzeko	330€ / 1.000 litros bakoitzeko

Ibilgailuentzako gasolioaren erabilera profesionalaren eta ez profesionalaren arteko bereizketa ezartzea ahalbidetzen du, jarraian aipatzen diren baldintzekin:

- Gutxienerako tasak errespetatzea.
- Gasolio profesionalari aplika daitezkeen tasa estatu mailan 2003ko urtarrilaren 1ean zegoen zerga baino txikiagoa ez izatea (Espainian HZB 1.000 litro bakoitzeko 293,80€= 296,86€+ Hidrokarburo Jakinen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergaren estatuko tartearen 24€).

Kontseiluaren 2003/96/CE Zuzentaraua, 2003ko urriaren 27koa, energia gaien eta argindarraren zergen Erkidegoko esparrua berregituratzen duena.

Baina zer da, zuzentzarauaren arabera, *ibilgailuentzako erregai gisa erabiltzen den Gasolio Profesionala?* (7.3. artikulua)

- Salgaien errepide-garraiorako, 7,5 tona ego gehiagoko baimendutako gehieneko zama duten ibilgailuek erabiltzen dutena.
- Bidaiarien garraioa: M2 (gidaria eta zortzi eserlekutik gora eta 5 tona edo gutxia goko baimendutako gehieneko zama) eta M3 (gidaria eta zortzi eserlekutik gora eta 5 tonatik gorako baimendutako gehieneko zama).

Zenbait herrialderentzako behin-behineko epeak, Espainia horien artean dagoela

Ibilgailuentzako gasolioa	2007ko 1ren-1etik aurrera	2002ko 1ren-1etik aurrera
	1.000 litro bakoitzeko 302€	1.000 litro bakoitzeko 330 €
Gasolio profesionala: Zerga tasa	2009ko 12ren 31ra arte	2010-1-1etik 2012-1-1era arte
	1.000 litro bakoitzeko 287€ 2009-1-1eko (293,86 €)	1.000 litro bakoitzeko 302 € 2010/1/1eko maila
Gasolio profesionala:	Ezartzeko eremua	2012/1/1era arte
Ezartzeko eremua:	Taxiak ere	3,5 tonako gehieneko zama

1. GASOLIO PROFESIONALA

Estatuko tartea: 1.000 litro bakoitzeko 24€
Autonomiakoa: 48€ ra arte

Egungo egoera

Ibilgailuentzako gasolioaren zerga tasa 2007an

Hidrokarburoen gaineko zerga	HJTSGZ	GUZTIRA
1.000 litro bakoitzeko 278 €	Estatuko tartea: 1.000 litro bakoitzeko 24 € Autonomiakoa: 48 € ra arte	1.000 litro bakoitzeko 302 € +Autonómico tartea

Gasolio profesionalaren zerga tasa 2007an

Hidrokarburoen gaineko zerga	HJTSGZ	GUZTIRA
1.000 litro bakoitzeko 269,86 €	Estatuko tartea: 1.000 litro bakoitzeko 24 € Autonomiakoa: 48 € ra arte	1.000 litro bakoitzeko 293,86 € +Autonómico tartea

Gasolioaren eta gasolio profesionalaren arteko aldea 2007an

Hidrokarburoen gaineko zerga	HJTSGZ	GUZTIRA
1.000 litro bakoitzeko 8,14 €	Autonomiakoa: 0 - 48 €	1.000 litro bakoitzeko 8,14 € (+Autonómico tartea) 56,14 € gehienez

Gasolioaren zergak EBn. Anlisi konparatzailea



(*) Penintsula eta Balearrak

Estatu kideen artean tasatan dauden funtsezko aldeak. Espainian, orokorrean, fiskaltasuna (presio fiskala aintzat hartuta aztertzen badugu ere —BPGri dagokionez— edo ahalegin fiskala aintzat hartuta aztertzen badugu —biztanleko errentari dagokionez) eta salneurriak txikiagoak dira.